

Ibilbide luzea eta gogorra da. Ia 15 kilometro ditu, 900 metroko desnibela, eta herriko plazatik Mandoegiko tontorreraino (1045 m) igotzen da. Mandoegiko errekaen arroaren mugetan ibiliko gara. Gainerako ibilbideak bezala, herriko plazan hasiko da. Urumea ibaia Zubiaunditik igaroz, Sancti Spiritu auzo aldera, gero Alkasoaldea auzora doan bide asfaltatua hartu behar dugu. Hilerraren ondotik Olaberriko ola zahararen aztarnak ikusiko ditugu. Garai batean Espainiako Armadaren itsasontzien kroskoak babesteko kobre xaflak egiten ziren han.

Bidegurutze honetan bidexka mehar bat hartuko dugu Petxi baserri-raino, eta handik hormigoizko bidea, Martintxenera iritsi arte. Basopistetatik gora igoko gara, haritz basoak zeharkatuz —bertakoak nahiz haritz amerikarrak—, baita zenbait pinudi ere. Handik zuhaitzik gabeko bizkar batera iritsiko gara, Altzanburura hain zuzen ere. Gora doan bidea hartuta, Basilioeren borda alde batera utziz, Añoneara iritsiko gara, eta izen bereko trikuharria ikusiko dugu, nahikoa ongi mantendu dena. 5.000 urte inguruko trikuharria da, indoeuroparren lehenengo inbasioarekin batera altxatua, eta lurperatze kolektiboak egiteko eraiki zuten.

Berriz ere lehengo baso-pista hartuz, gora egingo dugu Errekalekuko leporaino (660m). Mairu-baratze multzo bat dago bertan, eta Euskal Herriko multzorik garrantzitsuenetakoa da, orain dela 2.600 urte eraikia adituen ustez. Mairu-baratzeak zirkulu forma duten espazioak dira, tamaina ezberdineko harrien bitartez markatuak, eta erdian beste nonbait erretako gizaki baten errautsak gordetzen zituzten.

Goizueta eta Aranoren arteko muga markatzen duen itxitura Leunetako tontorreraino (883 m) igotzen da zuzenean. Hego-ekialderantz eta gorantz doan bidexka bat hartuko dugu, otadi eta larre artean Mandoegiko goi-ibarretik Biamako gaineraino (885 m) eramanen gaituena.



Behin bizkarrera iritsita hegoalderantz abiatuko gara, Illasoroko mugarri-raino. Han elkartzen dira Goizueta, Elduain eta Berastegi, azkenean biak Gipuzkoako udalerrriak.

Mugarritik oso hurbil Ezpondako Zuloa dago, garai batean burdina ateratzeko guinea izandakoa. Kondairak dioenez, han dago Pe-roanean jaiotako Ezponda goizuetarraren arima. Gaitztoa omen zen oso, eta herritar guztiak haren beldur izaten ziren. Hil ondoren, dirudienz, hodei beltz beldurgarri baten gainean agertzen omen zen, zaldi gainean igota. Apezak exorzismoa egin behar izan zuen. Gurutzearen laguntzaz hodeia urrutiko zulo hartara eraman zuen, eta bertatik ez ateratzea zigortu zuen hainbat urtetarako, anega laurdenak dituen liho-hazi adina urterako hain zuzen ere.

Ezponda Zuloa utzi eta Abadegurutz edo Baratzazarretako kaskora (982 m) iritsiko gara. Zoritxarreko tokia da, bertan gertatu baitzen oraindik erabat argitu gabe dagoen heriotza. Han hil zuten Tomas Arribillaga, Aranon apaiz lanetan zebilen leizarra. Beheraxeago haren omenez jarritako burdinazko gurutze txiki bat ikus daiteke. 1779ko urriaren 27an hil zuten apaiza. Hilketaren zergatia argi ez dagoen arren, sinesgarri izan litezkeen hiru azalpen aipatu izan dira: lehena, pilota partida bat irabazita lortutako dirua kentzeko apustua galdu zutenetakoa batek hil zuela; bigarrena, karta jokoan irabazitako sosa eskuratzeko asmoz galtzailak —Aranoko bizarginak— hil izana; eta, hirugarrena, apaizak Aranoko neska gazte bat haurdun utzi zuela eta neska haren aitak hil zuela.

Ibilbideko tokirik altuenera iritsiko gara ondoren, Mandoegiko gainera hain zuzen (1.045 m). Uren banalerroaren hegoaldeko aldetik jaitsiko gara Zalkuko larreetara. Paraje hauetan 600 ardi, 300 behi eta 60 behor inguru bazkatzen dira, eta abeltzaintzarako Goizuetan dagoen ingururik garrantzitsuenena da.

Herrira itzultzeko jaitsiera luzea egingo dugu. Tartazutik pasako gara, ondoren Domiña baserritik eta Samarreneatik, Alkainzuriain auzoko ipar aldean, eta berehala iritsiko gara herrigunera.



luzera/longitud/longueur
14.850 m

desnibela/desnível/dénivelé
890 m

seinaleak/marcas/balissage

iraupena/duración/durée
4,5 h

zailtasuna/dificultad/difficulté
ertaina/media/moyenne



jarraitu
continuar
bonne direction



ez jarraitu
no continuar
mauvaise direction



norbide aldaketa
cambio de dirección
changement de direction



Añoneko trikuharria/Dolmen de Añone/Dolmen d'Añoñe



Errekalekuko mairu-baratzeak/Cromlechs de Errekaleku/
Cromlechs d'Errekaleku



Abadegurutz

Cette randonnée exigeante de près de 15 km et 900 m de dénivelé vous mènera de Goizueta au sommet du Mandoegi (1045m) par un grand boucle parcourant les limites de la vallée du cours d'eau du même nom.

Depuis la place du village, cet itinéraire traverse l'Urumea par le pont Zubiandi en direction du quartier de Sancti Spiritu et bifurque à droite pour emprunter une piste bétonnée en direction du hameau d'Alkasoaldea. Peu après avoir passé le cimetière, à proximité d'un caserío vous pourrez apercevoir les ruines de l'usine d'Olaberria où étaient fabriquées les plaques de cuivre qui servaient à la protection de la coque des navires de la couronne.

Au carrefour, empruntez l'étroit sentier qui remonte jusqu'au caserío Petxi et, depuis celui-ci, suivez les pistes bétonnées jusqu'au caserío Martintxenea. L'ascension se poursuit le long de pistes forestières qui traversent des peuplements de chênes autochtones, de chênes rouges d'Amérique ou encore de pin radiata avant de déboucher sur les hauteurs enherbées d'Altzanburu. Continuez votre ascension par la piste qui vous conduit en direction des Basilioeren Borda puis Añonean où vous pourrez un dolmen bien conservé, le dolmen d'Añonean. Ce monument, construit il y a environ 5000 ans, soit lors des premières invasions indoeuropéennes, constituait un site d'enterrement collectif. La même piste vous conduira jusqu'au col d'Errekaleku (660m) où se trouve l'une des plus importantes concentrations de cromlech du Pays Basque, datée d'il y a 2600 ans. Les cromlechs sont des monuments funéraires formés par un cercle de pierre au centre duquel sont placés les cendres du défunt.

Poursuivez votre route en longeant la clôture qui marque la limite avec la commune d'Arano et monte en direction du sommet de Leuneta (883m). Empruntez le sentier qui bifurque à gauche au bout d'une centaine de mètres en direction du Biamako gaina (885m) en coupant à travers les pâturages de la tête de bassin du Mandoegi.

Depuis le Biamako gaina, suivez la ligne de crête en direction du sud. Quelques 800m plus loin, vous passerez devant la borne d'Illasoro, où la commune de Goizueta rencontre ses voisins Guipuzcoanes d'Elduain et Berastegi.

À proximité, vous rencontrerez les restes de la prospection de fer d'Ezpondako zuloa où est enfermée l'âme d'un habitant de Goizueta nommé Ezponda, natif de la maison Peruenea, et craint de tout le village en raison de sa grande méchanceté. Après sa mort, celui-ci revint hanté le village monté sur un cheval lui-même perché sur un nuage noir. Le prêtre du village dut avoir recours à l'exorcisme et pu, à l'aide de sa croix, enfermer l'esprit dans cette cavité, où il le condamna à rester enfermé pour un nombre d'années égal au nombre de graines de lin contenues dans un quart de fanègue.

Le sentier vous mènera ensuite jusqu'à l'Abadegurutz ou Baratzazarretako kaskoa (982m) où un prêtre d'Arano, Thomas de Arribillaga, fut assassiné le 27 octobre 1779 dans des circonstances peu claires. Parmi toutes les hypothèses sur les raisons de la mort de ce natif de Leiza, les trois plus vraisemblables sont : la vengeance d'un adversaire battu dans une partie de pelote au cours de laquelle de fortes sommes d'argent avaient été jouées, la vengeance du barbier d'Arano à qui il aurait gagné une forte somme au cartes ou encore la vengeance du père d'une jeune fille du village qu'il aurait engrossé.

Vous attendrez ensuite le sommet du Mandoegi (1045m), depuis lequel vous entamerez la redescente vers Goizueta. Le chemin de retour vous mènera à travers les pâturages de Zalku qui, en hébergeant quelques 600 brebis, 300 vaches et 60 chevaux, sont les pâturages les plus importants du village.

La fin de la descente vers le village vous fera traverser le hameau d'Alkainzuriain, en passant à proximité de Tartazu et des caseríos de Domiña et Samarenea.



- 1 Olaberri
- 2 Altzanburu
- 3 Añonea
- 4 Errekaleku
- 5 Abadegurutz
- 6 Mandoegi
- 7 Zalku
- 8 Biosoro
- 9 Samarrenea



Mandogiko tontorra/Cima de Mandoegi/
Sommet d'Mandoegi



GOIZUETAKO BIDE SAREA RED DE SENDEROS DE GOIZUETA RÉSEAU DE SENTIERS DE GOIZUETA



MANDOEGI

Ruta exigente de casi 15 km y 900 m de desnivel que recorre en forma de bucle los límites de la cuenca vertiente de Mandoegi.

Desde la plaza se atraviesa el puente de Zubiandi hacia el Barrio de Sancti Spiritu y se toma a la derecha el camino asfaltado que se dirige hacia el barrio de Alkasoaldea. Poco después que pasar junto a la puerta del cementerio se aprecia a la izquierda junto a un caserío y una regata las ruinas de la antigua fábrica de Olaberria donde se fabricaban planchas de cobre que se emplearon en la protección de los cascos de los navíos de la corona.

En el mismo cruce tomamos un estrecho sendero que remonta hasta el caserío Petxi y de éste por pistas hormigonadas hasta el de Martintxenea. Ya sobre pistas forestales seguimos en ascenso atravesando algunas masas de robles autóctonos y americanos así como pinares de pino insignis. Finalmente alcanzamos el paraje Altzanburu sobre una loma despejada. Tomamos la pista que sigue ascendiendo pasando por Añonea donde podremos observar el dolmen del mismo nombre.

Retomando la pista anterior continuaremos el ascenso hasta alcanzar el collado de Errekaleku (660 m) donde se encuentra una de las concentraciones de cromlechs más importantes de Euskal Herria. Tomaremos la senda que remonta hacia la cabecera del valle de Mandoegi hasta Biamako gaina (885 m), atravesando pastizales y argomales. Una vez en la cresta proseguimos en dirección sur pasando junto al mojón de Illasoro donde confrontan los términos de Goizueta y los guipuzcoanos de Elduain y Berastegi.

A muy poca distancia se localiza el paraje Ezpondako zuloa, restos de una prospección de hierro donde dicen que reposa el alma de un vecino de Goizueta, llamado Ezponda y nativo de la casa Peruenea, y temido por todos. Tras su muerte dicen que se manifestaba montado en un caballo sobre una amenazadora nube negra. Un sacerdote hubo de recurrir al exorcismo y trasladar la nube con ayuda de una cruz hasta esta remota cavidad condenándolo a no salir de ella en tantos años como granos existen en un cuarto de fanega de simiente de lino.

A continuación se alcanza la cima de Abadegurutz o Baratzazarretako kaskoa (982 m) lugar trágico pues fue testigo del asesinato de un presbítero de Leiza que ejercía de cura en Arano en circunstancias poco claras. Podemos observar más abajo hacia el este se observa una pequeña cruz de hierro. Se llamaba Thomas de Arribillaga y dejó este mundo el 27 de octubre de 1779, tal como atestigua la cruz. Entre las causas de su asesinato hay tres que tienen cierta credibilidad: que ganó un partido de pelota y una considerable suma de dinero de las apuestas y fue asaltado por uno de los perdedores; que por ganar igualmente a las cartas fue emboscado también por su contrincante, barbero en Arano; y que fue asesinado por el padre de una joven del mismo pueblo a la que dejó encinta.

Después llegaremos al lugar más elevado de la ruta, la cima de Mandoegi (1045 m) desde donde descenderemos esta vez por la divisoria sur hasta los pastizales de Zalku. En esta zona pastan 600 ovejas, 300 vacas y unas 60 yeguas siendo en la actualidad el área de mayor importancia ganadera de la localidad.

En prolongado descenso pasamos por Tartazu y cerca del caserío Domiña y Samarrenea, en la vertiente norte del Barrio Alkainzuriain, para alcanzar rápidamente el casco urbano.

Goizuetako Udala
Ayuntamiento de Goizueta
Commune de Goizueta

